Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak:

De conformidad con lo previsto en el artículo 6. 4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

**5/2022 Foru Araua, abenduaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarrizko ikerketarako mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalak arautzen dituena.**

**Norma Foral 5/2022, de 20 de diciembre, de incentivos fiscales al mecenazgo para la investigación básica en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.**

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA**
**EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

# Araugintzako ebaluazio txostena

# Informe de evaluación normativa

**5/2022 Foru Araua, abenduaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarrizko ikerketarako mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalak arautzen dituena**

**Norma Foral 5/2022, de 20 de diciembre, de incentivos fiscales al mecenazgo para la investigación básica en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.**

## Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiak sentsibilitate handia erakutsi du beti ikerketa, garapena eta berrikuntza ezarri eta bultzatzeko, bai alderdi ekonomikotik bai sozialetik. Eta horretarako, zenbait neurri pizgarri eraman dira aurrera, arlo fiskalean zein diru-laguntzen bidez.

Neurri fiskalen artean dago, urtez urte ikerketa programa edo jarduera jakin batzuk lehentasunezko deklaratzen direla, irabazi asmorik gabeko entitateen eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko zerga erregimenean (3/2004 Foru Araua).

## Introducción

La Diputación Foral de Gipuzkoa siempre ha mostrado una importante sensibilidad en la labor de implementación e impulso de la investigación, el desarrollo y la innovación, tanto en su vertiente económica como social. Y para ello, se han llevado a cabo diversas medidas incentivadoras tanto desde el ámbito fiscal como desde la vía de las subvenciones.

Dentro de las medidas fiscales se encuentra la inclusión, año tras año, de diferentes programas o actividades de investigación como actividades prioritarias, dentro del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al

mecenazgo (Norma Foral 3/2004).

Neurri horiek aplikatu diren urteetan lortutako esperientziak erakutsi zuen, I+G+B arloan oinarrizko ikerketa da finantzaketa zailtasun gehien zituen adarra. Hori dela eta, beharrezko gertatzen zen ahalegin handiago bat egitea bikaintasuneko oinarrizko ikerketa sustatzeko.

De la experiencia adquirida en los años de aplicación de esas medidas se observó que en el ámbito del I+D+i, la investigación básica era la rama que más dificultades de financiación sufre. Por ello, resultaba necesario proceder a realizar un esfuerzo aún mayor para promover la investigación básica de excelencia.

Horrela, eta nola mezenasgoak erakutsi duen oso tresna baliagarria dela helburu hori lortzeko, egokitzat jo zen eremu pribatuaren finantzaketa bide iraunkorrak irekitzea.

Así, y como el mecenazgo ha venido demostrando ser una herramienta útil para lograr ese objetivo, se consideró oportuno abrir vías permanentes de financiación del ámbito privado.

Horretarako, foru arau hau egiten da Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten den oinarrizko ikerketara zuzendutako mezenasgoaren aldeko zerga-neurriak arautzeko. Xedea da oinarrizko ikerketaren arloan arau esparru propio bat ezartzea, diru baliabideak eskuratzea ahalbidetzeko eta bere finantzazioa hobetzeko; betiere, gure lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialean laguntzeko.

Para ello, se elabora esta norma foral de incentivos fiscales al mecenazgo para la investigación básica en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se trata de establecer un marco regulador propio de mecenazgo en la investigación básica, con el objetivo de captar recursos y mejorar la financiación de la misma, a fin de contribuir al desarrollo económico y social de nuestro territorio.

**Horrela, ezartzen da:**

- zer jotzen den oinarrizko ikerketatzat.

**Así, se regula:**

- qué se considera como investigación

Horrela, oinarrizko ikerketatzat hartuko da 2/2014 Foru Arauaren 62.2 artikuluko a) letran halakotzat jotzen dena: ezagutza berriak aurkitzeko eta zientzian edo teknologian goi ulerkuntza bilatzeko egiten den "oinarrizko ikerketa" edo azterlan original eta planifikatua, betiere merkataritza edo industria helburuetatik kanpokoa.

básica. Así, se establece que investigación básica es lo regulado por la letra a) del artículo 62.2 de la Norma Foral 2/2014: indagación original y planificada que persiga descubrir nuevos conocimientos y una superior comprensión en el ámbito científico o tecnológico, desvinculada de fines comerciales o industriales.

- mezenasgo modalitateak: emaitzak, dohaintzak, ekarpenak eta legatuak; kolaborazio enpresarialeko hitzarmenak.

- las modalidades de mecenazgo: donativos, donaciones, aportaciones y legados; convenios de colaboración empresarial.

- mezenasgoaren onuradun diren erakundeak: Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak (BERC); A motako ebaluazioa lortu duten unibertsitateetako ikerkuntza taldeak.

- qué entidades tienen la consideración de beneficiarias del mecenazgo: los Centros de Investigación Básica y de Excelencia (BERC); los grupos de Investigación de las Universidades con evaluación del tipo A.

- aurreikusitako zerga pizgarriak aplikatu ahal izateko komunikazio/baimen/justifikazioko sistema osoa.

- todo el sistema completo de comunicación/autorización/justificación para poder aplicarse los incentivos fiscales previstos.

- pizgarri fiskalak aplikatzeko oinarria zehazteko arauak, mezenasgo-modalitate bakoitzerako: 1) diruzko emaitza, dohaintza, ekarpen eta legatuetan, beren zenbatekoa, 2) ondasun edo eskubideen dohaintza,

- las reglas de determinación de la base para la aplicación de los incentivos fiscales, para cada tipo de modalidad de mecenazgo: 1) en el caso de donativos, donaciones, aportaciones y legados

ekarpen eta legatuetan, eskualdatzeko unean zuten kontabilitate balioa eta, halakorik ezean, ondarearen gaineko zergaren arauei jarraituz zehaztutako balioa; 3) gozamen eskubide erreal bat eratzen den kasuetan, eskubide horien erregela propioak, ondasun higiezinak, baloreak edo bestelako ondasun eta eskubideak diren kontuan hartuta.

dinerarios, ese propio importe; 2) en el caso de donaciones, aportaciones y legados de bienes o derechos, el valor contable que tuviesen en el momento de la transmisión y, en su defecto, el valor determinado conforme a las normas del impuesto sobre el patrimonio; 3) en el caso de constitución de derechos reales de usufructo, sus propias reglas según sean bienes inmuebles, valores u otro tipo de bienes y derechos.

- aplikagarriak diren zerga pizgarriak.

- los incentivos fiscales aplicables.

**Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren** zergadunek, balorazio arauen arabera zehaztutako oinarriaren %35eko kenkaria aplikatu ahal izango dute kuotan.

Las personas contribuyentes del **Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas** podrán aplicarse una deducción en cuota del 35% de la base determinada según las reglas de valoración.

**Sozietateen gaineko Zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergako** zergadunek, ondorengo zerga onura izango dituzte:

Las personas contribuyentes del **Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de No Residentes (que operen mediante establecimiento permanente)** gozarán de los siguientes beneficios fiscales:

- Ordaindutako zenbatekoak edo ezarritako balorazio arauen arabera egindako eta baloratutako gastuak, gastu kengarritzat hartuko dira oinarri ezargarria zehazterakoan.

- Tendrán la consideración de gastos deducibles para la determinación de la base imponible, las cantidades satisfechas o los gastos realizados y valorados de conformidad a las reglas de valoración

establecidas.

- Balorazio arauen arabera zehaztutako oinarriaren %20ko kenkaria egiteko eskubidea izango dute, zergaren kuota likidoan.

- Tendrán derecho a practicar una deducción, en la cuota líquida del impuesto, del 20% de la base determinada según las reglas de valoración.

Dohaintzengatik dohaintza emaileak lortzen dituen ondare irabaziak eta errenta positiboak salbuetsita egongo dira, baldin eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari lotuta badaude.

Estarán exentas las ganancias patrimoniales y las rentas positivas de la persona o entidad donante que se pongan de manifiesto con ocasión de las donaciones, que estén sujetas al impuesto sobre la renta de las personas físicas, al impuesto sobre sociedades o al impuesto sobre la renta de no residentes para contribuyentes que operen mediante establecimiento permanente.

Oinarrizko ikerketarako mezenasgoari aplikatzeko arautzen diren pizgarri fiskalek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten ziren zergaldietarako izan zuten eragina.

Los incentivos fiscales aplicables al mecenazgo para la investigación básica surtían efectos para los periodos impositivos que se iniciaban a partir del 1 de enero de 2023.

**Indarrean dagoen araudiari dagokionez, aplikagarriak diren zerga pizgarrietan dauden alde nagusiak honako hauek dira:**

**Respecto a la normativa vigente las principales diferencias en los incentivos fiscales aplicables son:**

- Indarrean dagoen PFEZko araudiarekin oinarrizko ikerketako jardueretara egindako dohaintzak %30eko kenkaria dute

- Con la normativa vigente del IRPF las cantidades destinadas a actividades de investigación tienen una deducción del

lehentasunezko jarduera bezala hartzen badira; eta %20a mezenasgoko jarduerak badira. Proposamenarekin, denek %35eko kenkaria dute.

- Indarrean dagoen SZko araudiarekin oinarrizko ikerketako jardueretara egindako dohaintzak %18ko kenkaria dute lehentasunezko jarduera bezala hartzen badira; eta ez dute inolako kenkaririk kuotan mezenasgoko jarduerak badira. Proposamenarekin, denek %20ko kenkaria dute.

30% si se consideran actividades prioritarias y del 20% si se consideran actividades de mecenazgo. Con la propuesta, todas tienen una deducción del 35%.

- Con la normativa vigente del IS y del IRNR las cantidades destinadas a actividades de investigación tienen una deducción del 18% si se consideran actividades prioritarias y no tienen ningún tipo de deducción en cuota si se consideran actividades de mecenazgo. Con la propuesta, todas tienen una deducción del 20%.

## Sortutako ondorioak

2024ko otsailaren 15ean, eta emaitzen, dohaintzen, doako zerbitzu prestazioen eta bestelako ekarpenen urteko laburpenaren 182 ereduko 2023ko ekitaldiko datuetan oinarrituta, 2 dohaintza jaso dira guztira 2.200 euroko zenbatekoan, “I” kodean, “Kenkarirako eskubidea duten emaitzak, dohaintzak, ekarpenak, legatuak eta gastuak, oinarrizko ikerketarako mezenasgorako lankidetza hitzarmenen ondorioz egindakoak”.

## Efectos producidos

A fecha de 15 de febrero de 2024, y en base a los datos del ejercicio 2023 del modelo 182 de resumen anual de donativos, donaciones, prestaciones gratuitas de servicios y demás aportaciones, se han consignado con clave “I” de “Donativos, donaciones, aportaciones, legados y gastos con derecho a deducción realizados en virtud de convenios de colaboración destinados al mecenazgo para la investigación básica”, un total de 2 donativos por importe de 2.200 euros.

## Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura

Foru arau hau indarrean sartu arte, oinarrizko ikerketako programei edo jarduerei egindako dohaintzek, onura fiskal jakin batzuk izan zitzaketen, baldin eta apirilaren 7ko 3/2004 Arauaren zerga araubidearen barruan bazeuden, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoan.

Orain, oinarrizko ikerketaren mezenasgoaren berezko esparru arautzailea du, baliabide gehiago erakartzeko eta horretan diharduten entitateen finantzaketa hobetzeko.

Indarraldiko lehen urte honetako emaitzak oso baxuak badira ere, ez dugu ahaztu behar, "I+G+b"-rako pizgarri fiskalen eraginkortasunari buruzko azken urteetako literatura enpirikoaren[1] arabera, administrazioak pizgarri fiskal horretara bideratzen duen euro bakoitzeko, itzulera 1 eta 1,5 euro artekoa da. Beraz, jarduera horiek sustatzeak gizarte osoari eragiten dio eta ondorio onuragarriak ditu, eta

## Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados

Hasta la entrada en vigor de esta norma foral, las donaciones realizadas a programas o actividades de investigación básica podían beneficiarse de determinados beneficios fiscales, en el caso de que estuvieran dentro del régimen fiscal de la Norma 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Ahora, tienen un marco regulador propio de mecenazgo en la investigación básica, con el objetivo de captar más recursos y mejorar la financiación de las entidades que se dedican a la misma.

Aunque los resultados de este primer año de vigencia son muy bajos, tampoco debemos olvidar que la literatura empírica[1] de los últimos años sobre la efectividad los incentivos fiscales a la "I+D+i" señala que por cada euro que la administración destina a ese incentivo fiscal, el retorno se encuentra entre 1 y 1,5 euros. Por tanto, fomentar la realización de esas actividades repercute y

[1] The effects of R&D tax incentives and their role in the innovation policy mix: Findings from the OECD microBeRD project, 2016-19" / AIREF Spending Review Deducción por I+D+i en el impuesto sobre sociedades (2020) / Hall, B. y Van Reenen, J. "How effective are fiscal incentives for R&D? A review of the evidence" (2020)

lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialari laguntzen dio.

tiene efectos beneficiosos para el conjunto de la sociedad, y contribuye al desarrollo económico y social del territorio.

## Araugintza garatzeko beharrak

Ez da inolako araugintza garapenik egin behar izan.

## Necesidades de desarrollo normativo

No ha habido necesidad de realizar ningún tipo de desarrollo normativo.

## Arauaren aplikazioagatik judizializatutako kasuak

Orain arte ez da judizializaziorik egin bere aplikazioan.

## Casos de judicialización por aplicación de la norma

Hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.

## Laburbilduz

Aztertutako foru araua eraginkortasunez bete da, ez da inolako arazorik izan hura aplikatzean, ez du ezbehar berezirik izan, eta orain arte ez da judizializaziorik egin haren aplikazioan.

## En resumen

La norma foral analizada se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.